

Evaristo Garciarena Uzkudun

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1923-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Malengone baserrian jaio zen 1923an. 13 anai-arreba izan ziren, nahiz eta bi umetan hil ziren. Beti baserrian bizi izandkoa; ardiak zaintzen denboraldiak ematen zituen mendian zuten etxolan. 1955ean ezkondu zen Maria Angeles Olaetxearekin. Biei batera egin zitzairen elkarriketa.

Zintak

BRS-014

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-16
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Txerriak etxe guztietan

- **Erref:** BRS-014/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Orain eskola dagoen lekuan erretore-etxea zegoen. Baserri-etxeak ziren gehienak Berastegin eta etxe guztietan egoten ziren txerriak, txerrikumeak hazi eta saltzetik bizi ziren asko eta.</p>

2. Inguruetan soro ugari; etxeko jeneroa saldu

- **Erref:** BRS-014/008
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Orain etxe berri asko egin da Berastegin, baina lehen soroak ziren inguruan. Garia eta artoa hartzen zen asko. Hiru puskatatik baten garia ereiten zen eta beste bietan artoa; eta urteka txandatu egiten zen. Babarruna ere asko egiten zen. Egunero jaten zen babarruna, astean babarrun gorria eta igandetan babarrun zuria edo garbantzua. Dirua ekartzeko etxeko jeneroa saldu egin behar izaten zen. Ardiekin ere ateratzen zuten diru pixka bat, bai gazta eginda edo baita arkumeak salduta ere.</p>

3. Ardizain mendian

- **Erref:** BRS-014/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Etiket kanpora gutxi lan egin izan du Evaristok. Ardiak zaintzen egoten zen mendian. Txabola batean egoten zen. Hasieran etiket eramaten zituen babarrunak baina gerora ardikia prestatzen zuen bertan. 20 egun inguru egiten zituen bertan. Ardiek udaberrian izaten dute lan gehien, arkumeak jaiotzen hasten direnean.</p>

4. Eskolan lehenbizi don Eliasekin eta gero apaizarekin

- **Erref:** BRS-014/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Plazan ibili ziren eskolan. Evaristo 8 urtera arte don Elias maisuarekin ibili zen eta orduan ikasitakoarekin gelditu omen zen, gerora irakaslea aldatu egin zen eta. Gero apaizari enkarguak egiten zizkion tarteka eta hark eskola partikularrak ematen zizkion. Baina lehen eskola gutxi jasotzen zuten, etxean lan egin behar izaten zuten eta.

5. Aita eta aitona ganadu-tratuan

- **Erref:** BRS-014/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Evaristoren aita eta aitona ganadu-tratuan ibiltzen ziren. Auritz ingururaino ere joaten ziren, Agoitzeraino trenez joanda. Ganadua handik ekarri eta Tolosan saltzen zuten ferian.

6. Dotrina euskaraz izan arren, zenbait hitz ulergaitzak

- **Erref:** BRS-014/017
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Neskek Cara al Sol abestu behar izaten zuten eskolara sartzean. Dotrina garrantzitsua zen, baina hura apaizarekin ikasten zuten. Eskolak gaztelaniaz jaso arren, dotrina euskaraz ikasten zuten. Hala ere, buruz ikasten zuten, eta zenbait hitz ez zituzten ulertzen.</p>

7. "Pazkoazkoa"; kongregazioak; dantza lotua debekatuta

- **Erref:** BRS-014/020
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:28:58. **Bukatu:** 00:31:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Orduan inor ez zen geratzen herrian jaunartzea egin gabe. "Pazkoazkoa" ere egin behar izaten zuten. "Pazkoazkoa" nola egiten zen. Elizak indar handia zuen orduan, beldurra sortzerainokoa. Kongregazioak. Dantza lotua debekatuta zegoen orduan, baita neskek elkarrekin eginez gero ere.</p>

8. Herriko soinujoleekin erromeria

- **Erref:** BRS-014/022
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Herrian bazen soinujole elbarri bat; ez zen ibiltzeko gai eta astoan ekartzen zuten. Umoretsua zen eta erromeria politak egiten omen zituen. Inguruko herrietatik ere bertara etortzen zen jendea dantzara. Beste soinujole bat ere bazen, nanoa. Bi anaiak omen ziren nanoak eta biak musikariak. Zaldiz ibiltzen ziren. Solfeoaz gain, Tolosan eskola ona ikasiak ziren.

9. Herriko bi anaia musikariak

- **Erref:** BRS-014/024
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:36:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bi anaia nanoak, biak ziren musikariak, batak pianoa eta besteak soinua jotzen zuten. Tolosan ikasi omen zuten musika eta eskolan ere bertan ibili ziren, frantsesekin. Musikari onak ziren, baina "kasketak" ere izaten omen zituzten.

10. San Lorentzo jaiak nolakoak izaten ziren

- **Erref:** BRS-014/025
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:36:58. **Bukatu:** 00:39:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Herriko festak San Lorentzoetan izaten dira. Dantzasoka egiten zen lehenago herriko txistulariekin. Kirol gutxi jartzen zuten orduan. Bertsolariak ekartzen zituzten normalean eta balkoitik balkoira abesten zuten. Pilota partidak ere izaten ziren. Etxeetan gonbidatuak izaten ziren. Iluntzean garaiz bukatzen zen festa.</p>

11. San Lorentzorekin fedea, "bixikak" kentzeko

- **Erref:** BRS-014/026
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:39:18. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>San Lorentzo ermita mendian dago. Jendeak fede handia zuen San Lorentzorekin, "bixikak" kentzen omen zituela eta.</p>

12. San Lorentzo ermitaren inguruko sineskeria

- **Erref:** BRS-014/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

San Lorentzo ermitaren inguruko sineskeriak: San Lorentzo ermita zaharra behean dago; berria goian egin zutenean, berriz behera etortzen omen zen ermita.

13. Inguruko ermitak: San Anton eta San Sebastian

- **Erref:** BRS-014/029
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:42:15. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Inguruko ermitak: San Anton eta San Sebastian. San Anton ganaduen patroia. Bide ertzean dago San Anton. Lehen jendeak dirua botatzen zuen bertara, baina gero lapurretak izaten omen ziren. San Sebastian, burukominen zaindaria omen da.

14. Umetako jolasak: gordeketan, aideketan, torniken, kaniketan...

- **Erref:** BRS-014/030
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan gordeketan, aideketan, torniken... jolasten zuten. "Aideketan" eta "torniken" jolasak nola egiten ziren azaltzen dute. Kaniketan ere jolasten zuten, bai paretean eta baita zuloan sartzen ere. Kanikak lurrezkoak izaten ziren normalean eta kristalezko bakanen bat ere egoten zen.

15. Gurasoei berorika

- **Erref:** BRS-014/036
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Evaristok anai-arrebekin hika hitz egin izan du, baina Maria Angelesek ez. Evaristok gurasoei berorika hitz egiteko ohitura zuen. Apaizari, medikuari eta maisuei egiten zitzairen berorika. Senar-emazteek elkarrekin zuka egiten zuten normalean. Emakumeen arteko hitanoa nahiko galduta dagoela herrian dirudi.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com